

# GURE LURRA

 **GIPUZKOA**  
*Ekin. Zaindu. Bizi.*

## Une erabakigarrian gaude

Egin dezagun aurrera elkarrekin

10. ALEA: ABUZTUA 2024



# AURKIBIDEA



## ERRONKAZ BETERIKO UNEA

3. Orr.



## UNE ERABAKIGARRIAN GAUDE

4. Orr.



## SEBASTIANEN BAPATEKOA

7. Orr.



## BASOGINTZA

8. Orr.



## ABELZAINEKIN BAT

10. Orr.



## BSTK BASOTIK FUNDAZIOA

17. Orr.



## GIPUZKOAKO FAUNA BERRESKURATZEN

18. Orr.



## IMPULSANDO LAS ZONAS RURALES DE GIPUZKOA

20. Orr.



## BELAUNALDI ERRELEBOA BERMATUZ

26. Orr.



## HERRITARREN BATZARRA

28. Orr.



## ESLOVENIA ETA IRLANDAKO GOBERNUEKIN ELKARLANEAN

29. Orr.



## ITURRARAN: PAGOETA NATURA PARKEA

30. Orr.



## NIRE ETXETXOTIK

31. Orr.



## ALBISTE LABURRAK

32. Orr.

**GURE LURRA** aldizkaria

### ARGITARATZAILEA:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurune eta Natur Ingurune alorra.

Gipuzkoa plaza z.g. 20004, Donostia.

943 112 198 / 943 112 054

### ERREDAKZIOA ETA DISEINUA: ARAZI

**ARGAZKIAK:** Gipuzkoako Foru Aldundia, Unsplash, Pexels, Schlaghecken Josef.

**INPRIMATZAILEA:** MICHELENA ARTES GRÁFICAS S. L.

**ALE BAKOITZAREN KOSTUA:** 1,61 €

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartutako kostua.



La marca de la gestión forestal responsable

Aldizkari hau basoen ustiaketa jasangarriaren bitartez eskuraturiko paperarekin sortua dago.



Lurralde Oreka Berdeko departamenduko lan-taldea.

# “Une erabakigarrian gaude”

## Xabier Arruti

Lurralde Oreka Berdeko Diputatua

Gipuzkoako Foru Aldundiaren legealdi honetako lehen urtea igaro da, 2024ko lehen sei hilabeteak ere bai.

Gure Lurra aldizkariko 2023ko iraileko 8.alean aurkezten genituen Lurralde Oreka Berdea departamentuaren legealdiko lan-ildo nagusiak.

Ez da urte erraza izan.

2023ko udazkenean Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoak gogor eraso zuen Gipuzkoako nekazaritza ustiatzietan. Gaitz berria eta sintomatologia arraro eta ezezagunak zituenez, tentsio eta noraez momentuak bizi izan genituen. Aldunditik saiatu gera ahalik eta erantzun azkar eta egokiena ematen: gaitzaren azterketa eginez, botiken kostua geure gain hartuz eta gaitzak eragindako kalteak konpentsatuz.

Oso kontziente gara gaitz hau gure artean daukagula oraindik eta bere ondorioak uzten ari dela sektorean.

Baso sektoreak ere baditu bere zailtasunak eta Banda marroien kalteak ere nabariak dira bazterretan.

Eta bien bitartean Europako Nekazaritza Politika Bateratuaren barruan Euskal Autonomi Erkidegoak 2027 arteko Plan Estrategikoa aurkeztu eta onartu zen. Datozen urteetan Europako diru-laguntzak nondik nora joango diren zehazten da bertan baina aldi berean diru horiek eskuratzeko jarraitu beharreko prozedura ere zehazten da. Eta hor, gero eta burokrasia handiago baten aurrean gaude.

Beraz, sektorea beti nahiko egoera delikatuaren egon bada ere, azken urteak nahiko astinduak izaten ari dira: pandemia,

Ukrainako gerra, Gaixotasun Hemorragiko epizootikoa, banda marroari, burokrasia,...

Egoera zail horrek lehen sektorea kalera irtetea ekarri zuen. Urte hasieran izandako manifestazio desberdinek, sektorearen nekea, ezina eta haserrea bistaratu zuten eta beraien errebindikazio eta eskariak ere luzatu zizkiguten.

Horren aurrean hiru Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzak, “Lehen sektorearekin hartutako konpromisoaren dekalogo” onartu zuten. Dekalogo horretan, epe motzeko txokeko ekintzak eta epe ertain eta luzeko neurri estrategikoak jasotzen dira.

Epe motzeko urgentzietan erantzun eta epe ertain-luzerako bidea ere prestatu, hori da erronka: gaur egun baserriko lana, duina eta errentagarria izatea eta aldi berean, etorkizuneko gure gizartean baserrietako belaunaldi berriak beharrezko sentitzea, aitortuak sentitzea eta egiten duten lana ordaindua izatea.

BSTK Basotik Fundazioa, Baserriar Misto Profesionalak, Kimuberritu, Zerbitzu Ekosistemikoen kenkariak, Goilarre,.... etorkizuneko ikuspegiarekin martxan jartzen ari garen proiektuak dira. Eta hauekin batera, egunerokotasunean sortzen diren arazo eta ezustekoei aurre egitea.

Aurtengo urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak beste muga bat ere izan du: aurrekontu luzatuak.

Orain hasten da 2025ko aurrekontuak diseinatu eta alderdi politikoekin adosteko garaia.

Ea denon artean gai izaten garen, beharrezko baliabideak lortzeko eta ezarri beharreko neurriekin asmatzeko.

# Sektore errentagarri bat izatearen beharra

Lehen sektoreak duen erronka nagusietako bat errentagarritasun falta da. Ekoizpen-kostu altuek, salmenta-prezio ezegonkorrekin batera, baserriarren jasangarritasun ekonomikoa zailtzen dute. Arazo honen aurrean, Aldundia lanean ari da, esku artean dituen tresnak aintzat hartuz, bai aurrekontu eta bai fiskalitate ikuspuntutik ere egoera honi buelta bat emateko asmoz.

Gure Lurra aldizkariaren aurreko alean aipatu genituen Aldundiak fiskalitateari dagokionez nekazarien eta abeltzainen jarduerari laguntzeko egindako neurri fiskalen hobekuntzak 2023ko errenta kanpainari begira, justifikatzen zailak diren gastuen zergak murriztuz.

Horrez gain, joan den maiatzean, ogasun eta finantza departamentuak Gipuzkoako nekazaritza praktika jasangarriak sustatzeko helburuarekin hartutako erabakiaren ondorioz, ingurumena eta klima errespetatzen dituzten laborantza-praktikak (eko-erregimenak) egiten dituzten baserriarrei Erkidegoko nekazaritza politikara bideratutako dirulaguntzen zergak ordaintzetik salbuetsita gelditzen dira.

Neurri hauez gain, Gipuzkoako Batzar Nagusietan urtariletik ekainera bitartean izandako erreforma fiskalari buruzko ponentzian, legen sektorearen lehiakortasun ekonomikoaz eta enpleguaz hausnartzeaz gain, jasangarritasuna eta zerbitzu ekosistemakoak bezalako gaiak landu dira. Helburua lehen sektorearen lana gure luraren zaintzan eta klima aldaketaren aurrean aitortu eta hemen egindako lanagatik hobari fiskalak proposatzea izan da. Ildo horretan, Suitzan edo Costa Rican aplikatzen diren hobari fiskalak hizpide izan dira. Suitzaren kasuan, Natura eta Paisaia Kontserbatzeko Lege Federalak pizgarri fiskalak erakintzen dizkie nekazariari landaredia zaintzeko, izurriteak maneiatzeko, basoak mantentzearen kostua murrizteko, ura kontserbatzeko, higaduraren aurkako babeserako, animalien ongizaterako, edo dibertsitate biologiko handiagoa babesteko. Costa Ricari dagokionez, Costa Ricako Ingurumen Zerbitzuaren Ordainketa Programak nekazariak edo lurren jabeak sustatzen ditu basoan kontserbatzearen truke.



# Klima aldaketa eta gaixotasunen ugaritzea

Nekazaritza laboreei eragiten dioten gaixotasunak etengabeko mehatxua dira sektoreentzat. Horiek eragin larria izan dezakete tokiko elikagaien ekoizpenean. Gipuzkoako baserritarrei egunerokoan kalte egiten dieten izurriak hainbat dira, hala nola, tomatearen sitsa, mahastiei eragiten dieten onddoa, *Carpocapsa* sagastietan, piperren birusa... Klima aldaketak gaixotasun berriak eta intsektuak ugaritzea ere eragin du, hala nola, zimitz kiratsduna, belardietako pipia, ezpeletan topatzen den harra, porruetako eulia... Gainera, izurrite horiei aurre egiteko baliabideak murrizten ari dira, eskuragarri dauden produktu fitosanitarioak gutxitzen ari direlako, Europako "Farm to Fork" estrategiak bultzatuta, 2030erako % 50 murriztu nahi baita haien erabilera.

Merkatu globalizatuak eta nazioarteko merkataritzak izurrite horien hedapena errazten dute. Horregatik, funtsezkoa da landare-osasuna bermatzea, landareak mugitzeko "pasaporte fitosanitarioa" erabiliz eta arriskuak minimizatzen mintegilandare ziurtatuak eskuratuz.

Erronka horiek gorabehera, Gipuzkoak zaintza-sare sendoa du, Biolur (ekoizle ekologikoak), Fruitel (fruta-saltzaileak) eta Baratzezainen Elkartea bezalako elkarteek osatua, eskualdeko landare-osasuna babesteko lankidetzeta estua baitute.



**Maite Otaño**  
GILBEko presidentea

"Nekazaritza integratuan intsektu izurrite bati aurre egiten diogunean, izurritearen zati batez elikatzen diren tokiko intsektuak erabiltzen ditugu; adibidez, amona mantangorria urrea da guretzat. Honi esker, izurriteak modu eraginkorrean kontrolatzeaz gain, oreka naturala sustatzen dugu nekazaritza-ekosisteman. Horrela, pestizida kimikoak erabiltzea saihesten dugu, ingurumena errespetatuz eta jasangarritasuna bermatuz.

Piperren kasuan adibidez, urteak daramatzagu Neikerrekin elkarlanean izurriteen aurrean erresistentea izango den bariatatea lortu nahian".



**Leire Ibarretxe**  
Biolur Gipuzkoa

"Nekazal ekoizpen sistemetan lurraren emankortasuna eta biodibertsitatea epe luzera zaintzea da gure helburua eta horren arabera lan egiten dugu. Lur lan, txandatze eta ongarriketara plangintza egokiak jarraitzea giltzarri dira izurri eta gaixotasunen kudeaketan. Bestalde, agrosistema biodibertsoak osatzen saiatzen gara, bai labore kopuru handia landuz, bai lore eta basa hesiak landatuz. Honela izanda, alde batetik ekosistema erresilienteagoak ditugu, eta bestetik izurri edo gaixotasun jakin batek eragindako kalteak erlatibizatzen dira. Desorekak daudenean, eta hauek jardueraren ekonomiarengan eragina izan dezaketenean, beste tresna batzuk lantzen ditugu, hala nola jatorri naturaleko fitosanitarioak, landare estraktuak edota intsektu laguntzaileak askatzeak".

*Tuta absoluta* intsektuaz jotako tomatea.

# Baserritarren erresilientzia

Europak gero eta ingurumen-estandar zorrotzagoak jarri, eritmoa markatu du. Neurri horiek nekazaritza jasangariago baterantz jotzen badute ere, tokiko ekoizleentzat erronka handiak dira: inbertsio finantzario handiak, errotuta dauden nekazaritza-jardueretan aldaketa sakonak...

Eskaera horien aurrean, sektoreak ahotsa altxatu eta traktoradak antolatu ditu. Aldarri hori, lehen sektoreak bere egunerokotasunean dituen zailtasunen adierazpen nabarmena da.

Neurri hauek modu integralean aplikatzen dira Batasun osoan lurralde bakoitzaren errealitatea aintzat hartu gabe. Zentzu honetan, eta azken hilabeteetan izandako Baserritarren aldarrikapenei erantzunez, Gipuzkoako Foru Aldundiak, beste euskal erakunde publikoekin batera -Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundia- datozen urteetan aplikagarria izango den dekalogo bat garatu du. Hemen lehen sektoreari laguntzeko hamar konpromiso hartu dira, beti ere euskal administrazioen eskumenak kontuan hartuz eta baita lehen sektorearen etorkizuna bermatzeko funtsezkotzat jotzen diren alderdien aldaketa gainerako administrazioei helarazi ahal izateko.

Testuinguru honetan, Aldundiak elkarlanerako lantalde bat ezarri du lehen sektoreko sindikatu, eragile eta mobilizazioetan parte hartu zuten pertsonekin. Lantalde honen helburua da denon artean burokrazia gutxitzeko neurriak hartzea.

Hauek dira dekalogoak jasotzen dituen puntuak:

1. Europako araudia malgutzea eta eskumen esparrua defendatzea
2. Kudeaketan laguntzea eta laguntzak izapidetzea
3. Elikadura katearen legea garatzea
4. Nekazaritza-lurzorua erabileraren kontserbazioa eta sustapena
5. Ingurumen politikak nekazaritzako jarduerekin sentsibilizatzea
6. Belaunaldiaren erreleboaren eta emakumeak sektorean presentzia / lidergo gehiago izatearen alde egitea
7. Sektorearen beharrei egokitutako laguntza-neurriak
8. Nekazaritzako aseguruak indartzea
9. Nekazaritzaren sektorean teknologiaren erabilera eta berrikuntza sustatzea
10. Lehen sektorea ahalduntzea

Gehiago ikusi:  
<https://labur.eus/GWO6S>



Eider Mendoza, Diputatu Nagusia, eta Xabier Arruti, Lurralde Oreak Berdeko Diputatuak, manifestatzaileen eskaerak jasotzen. 2024ko otsailak 12.

# Traktorea baserrian erabiltzetik autopistan erabiltzera pasatu da

KANPOKO PRODUKTOAK  
 ARAU DENAK HAUSTEN  
 ZERGA TA PAPELEO  
 KOSTU DENAK PUZTEN  
 FAMELI UGARIREN  
 AMETSAK ZAPUZTEN  
 EZIÑEKOA BAI TA  
 BASERRIEI EUSTEN  
 LANETIKAN BIZITZEN  
 EZ DIETE UZTEN

BIZI IRAUTE HUTSAK  
 ZER NOLAKO DRAMAK  
 BALIORIK EZ BAIDU  
 EGINDAKO LANAK  
 HASERRATUTA DAUDE  
 BASERRITAR DANAK  
 TRAKTOREAK KALERA  
 PREMIZ ERAMANAK  
 PROTESTA TRESNA DIRA  
 LAN TRESNAK DIRANAK



Sebastian Lizaso Iraola, Azpeitian jaio zen 1958 urtean. Gipuzkoan, bertsolaritza figura handien artean dago. 1982ko Bertso Txapelketa Nagusian finalista izan zen, 1986koan txapeldun, eta 1989 eta 1997koan txapeldun orde.



# Gipuzkoako basogintzari eta baso politikari buruz hausnarketa Gipuzkoako Batzar Nagusietan

Gipuzkoako Batzar Nagusietan Gipuzkoako basogintzari eta baso politikari buruzko ponentzia martxan da.

Ponentzia 2024ko martxoan hasi zen eta sei hilabete inguru iraungo du gutxi gorabehera. Batzar Nagusiak osatzen dituzten alderdi politiko guztiek adostutako eta, sektorea ezagutzen duten 35 adituek beren ikuspegia aurkeztuko dute eta hainbat esperientzia partekatuko dituzte, arlo horretan lurraldeak etorkizunean izango dituen erronkei aurre egiteko.

Ponentziaren helburuak honako hauek dira: Gipuzkoako basoaren eta basogintzaren egungo egoera aztertzea, Gipuzkoako gizarteak horretatik espero duenari buruz ikertzea eta gogoeta egitea klima aldaketaren eta biodibertsitatearen galeraren testuinguru berrian, eta horri dagokionez aurkezten diren erronkei erantzuten dieten politikak eta tresnak aztertzea.

Klima aldaketaren erronkaren aurrean, lurralde oreka berdea, espezieen aniztasuna eta gure basoen zaintza eta kudeaketa jasangarria bermatuko dituzten neurriak landuko dira. Ponentzia hauetan erronka horiei aurre egiteko interesgarriak izan daitezkeen ikuspegiak eta kasuak aztertuko dira. Halaber, egun indarrean dauden politika eta ekimenak ebaluatu eta horiei buruz hausnartuko da.

Hala saio hauetan landutako alderdietako batzuk hauek izan dira: belaunaldien arteko errelebo falta gero eta handiagoa, eta, ondorioz, basoen kudeaketa bertan behera uztea, edo gizarte gure baso ingurunearen zaintzari dagokionez hurbiltzeko eta sentsibilizatzeko beharra.

Honako hauek dira ponentzian parte hartu duten pertsonak:

- **Xabier Arruti**, Lurralde Oreka Berdeko diputatua
- **Xabier Iraola** eta **Xabier Zubiaurre**, ENBA elkarteko kideak
- **Edu Zabala Garagartza**, Baso Biziak Plataformako kidea
- **Iñaki Aizpuru**, Itsasondoko alkatea
- **Aitor Lekuona Alzugaray** GFA Lurralde Oreka Berdea departamenduko zerbitziburua
- **Juan Ramon Murua**, Baso kudeaketa eta errentagarritasuneko irakasle ohia EHUn
- **Mikel Etxeberria Okariz**, Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea
- **Iñaki Gerenabarrena Martinez de Lahidalga**, Hazi Fundazioko baso-ataleko teknikaria
- **Aitor Onandia Bereziartua**, Basoa Fundazioko teknikaria
- **Garikoitz Nazabal Etxabe**, EHNEko lehendakaria
- **Arturo Elosegi Iurtia**, EHUko irakaslea
- **Jon Mikel Zabala Iturriagagoitia**, Deustuko Unibertsitateko irakaslea
- **Aitziber Sarobere**, Naturkon elkarteko kidea
- **Oskar Azkarate**, Baskegur-eko zuzendari orokorra
- **Leire Salaberria** eta **Edurne Lacalle**, USSEko zuzendaria eta USSEko baso politika ahokularia
- **Iosu Lizarralde** eta **Iñaki Etxebeste**, TANTAI Baso Jabe Kooperatibako kideak
- **Antonio del Campo**, Universitat Politècnica de Valenciako irakaslea
- **Gorka Altuna**, Hazi Fundazioko teknikaria
- **Josu Azpitarte**, Euskadiko Zuraren Sektorearteko Mahaiko -MIME- teknikaria



Gipuzkoako basogintzari eta baso politikari buruzko ponentzia Batzar Nagusietan.



## Baso-zaintzaren **erronkak** Gipuzkoan

### Abandonua eta kudeaketa eza

Gipuzkoako baso-masaren %16,1 kudeatu gabe edo abandonatua dago, eta, beraz, handitu egiten da suteak, izurriteak eta gaixotasunak izateko arriskua. Gainera, baso-jabeen adin altuak -jabeen % 60ak, 60 urte baino gehiago ditu-, eta belaunaldien arteko erreleborik ezak egoera hori larriagotzen dute. Horrek guztiak eragotzi egiten du Gipuzkoako basoen kudeaketa egokia.

### Gaixotasunak

Banda marroien gaixotasunak gogor eragin die Gipuzkoako pinudiei. Lurraldeko *Intsinis* pinudien %32a gaitzak gogor jota dago, %31a tarteko egoeran dago eta %37an eragina baxuagoa da. Bestalde, banda gorria *Larizio* pinudia erasotzen ari da eta kalte mailak banda marroien oso antzekoak dira.

## Aldundiak hartu dituen **neurriak**

### 1. BSTK Basotik Fundazioaren sorrera

BSTK Basotik Fundazioaren helburua Gipuzkoako basoen abandonua saihestea da, baso-jabeei baso-zaintza jasagarri bat eskainiz. Hau da, alderdi ekonomikoetatik haratago ingurumen eta jasagarritasun irizpideak kontuan hartzen dituen ikuspuntutik.

Ekimena gizarteratzeko eta interesdunei horren xehetasunak zuzenean azaltzeko, BSTK Basotik Fundazioak informazio-topaketak antolatu zituen Gipuzkoako hainbat udalerritan. Guztira zazpi bilera egin ziren eta 1.600 pertsona inguru hurbildu ziren.

Basotik Fundazioa abian da eta lehen kontratuak sinatu dira. 2024 urtean, Fundazioak 200 jabeei diagnostiko pertsonalizatua eta kudeaketa-proposamen bat egitea eta aurreikusten du.

### 2. Baso-jabeei zuzendutako laguntzak berrestea

Aldundiak basoak mantendu, hobetu eta garatzeko 2024rako dirulaguntzen deialdia onartu du, eta 3,3 milioi euroko dotazioa bideratuko du baso jabeen jarduna laguntzera. Programa horrek lagundu nahi du modu iraunkorrean basoen funtzio ekonomiko, ekologiko eta sozialak mantentzen eta garatzen, lau laguntza lerro desberdinekin: basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeke edo egokitzeko azpiegiturak egitea; baso eremuak basotzea eta sortzea; suteek hondamendi naturalek eta hondamendiek eragindako kalteak prebenitzea; teknologietan eta eraldaketan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertsioak egitea; eta baso eta ingurumen zerbitzuak, klimaren ingurukoak eta basoen kontserbazioa.

### 3. Baso-gaixotasunei aurre egiteko neurriak

2024 urtean, baso-gaixotasunei aurre egiteko, tratamendu fitosanitarioetako laguntzak berreskuratu dira.

Bestalde, Neiker (Nekazaritza, Ikerketa eta Garapeneko Euskal Erakundea) kaltetutako eremuak baso-berritu ditzaketen landare erresistenteak garatzen ari da. Horretarako, gaixotasunari erresistenteak diren intsinis pinu aleak aukeratzeko ari da eta laborategian eta mendian ikertzen. Helburua da, etorkizunean, gaixotasunari aurre egingo dioten landareak mintegietan ekoiztu ahal izatea. Plan pilotuak lau eremu nagusi ditu: Genotipoak edo zuhaitz tolerantetako hautatzea tokiko baldintzetan, lurraldeari egokitutako espezieak hautatzeko mapak egitea; banda morroiarri eta gorriari aurre egiteko substantzia eta organismo eraginkorren ebaluazioa; in vitro, berotegian edo beste saiakuntza batzuetan erabiltzen diren substantziak ebaluatzeko lurreko eta aireko saiakuntzen eraginkortasuna ziurtatzea.

Bien bitartean, erresistenteagoak diren beste espezie batzuk landatzea sustatzen da, Gipuzkoako baso-masa bermatzeko.

[basotik.eus/es](https://basotik.eus/es)



[labur.eus/hNMon](https://labur.eus/hNMon)



#### Laguntza-lerro bakoitzeko onuradunek urtean jaso dezaketen diru kopurua:

- **60.000€ arte** baso bideak eraiki eta hobetzeko
- **60.000€ arte** baso landaketak, itxiturak, sasi garbiketak, ongarritzeak eta, 12 urte arteko kimaketak egiteko
- **30.000€ arte** tratamendu fitosanitarioak, bakanketak, sastrakak kentzeko, hobetze mozketak, inausketak, hauek utzitako hondakinak kentzeko, suebakiak egiteko, baso pista ezpondetako sastrakak kentzeko eta baso suteak itzaltzeko ur puntuak ezartzeko
- **60.000€ arte** baso antolaketa planak egitea, 12 urte baino gehiago dituzten basoetan sastrakak kendu, garbiketak egin, lehen entresakak, hazkundeko adar mozketak, goi inausketak eta ongarritzeak egiteko

# Comprometidos con el futuro de nuestros y nuestras baserritarras

La Diputación tiene una visión clara y decidida: trabajar codo a codo con los y las ganaderos/as de Gipuzkoa para garantizar condiciones óptimas que permitan su valiosa labor. A través de diversas iniciativas y acuerdos, como el firmado con la Mancomunidad de Enirio-Aralar y el proyecto Goilarre, la Diputación demuestra su firme compromiso con el bienestar de los y las ganaderos/as.

## Acuerdo con la Mancomunidad de Enirio-Aralar: Un Paso Adelante

La Diputación Foral de Gipuzkoa y la Mancomunidad de Enirio-Aralar han firmado un acuerdo con el objetivo de mejorar la conservación y gestión de Aralar y de sus actividades. Mediante este acuerdo se busca además consolidar e intensificar los pasos que se han dado hasta la fecha y fijar aquellos aspectos en los que es preciso intervenir en los próximos meses para afianzar la relación de cara a la toda la legislatura.

El documento refrendado por ambas instituciones fija las acciones a desarrollar durante este año en lo que respecta a la mejora de los pastos, bosques y otros hábitats, las acciones de sensibilización, la restauración y construcción de chabolas, el arreglo de pistas y la mejora de otras infraestructuras de la zona. Para acometer estos trabajos la Mancomunidad de Enirio-Aralar y la Diputación Foral de Gipuzkoa esperan invertir unos 300.000 euros. En el caso de la Institución Foral se destinarán 211.000 euros del programa Goilarre orientado al desarrollo de mejoras en los pastos de los montes públicos del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Por su parte la Mancomunidad de Enirio Aralar, empleará una partida de 85.000 euros para el desempeño de dichos trabajos.

El acuerdo también expresa la firme voluntad de alcanzar un consenso entre ambas instituciones para la correcta gestión y el avance en el cuidado y la mejora de la sierra de Aralar a lo largo de esta legislatura 2024-2027.

La firma de este acuerdo es el primer resultado de una dinámica de trabajo iniciada en la nueva legislatura por parte de representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Mancomunidad de Enirio Aralar. Se busca así retomar las relaciones bloqueadas desde 2019 con el objetivo de llegar a pactos firmes que garanticen y fijen las mejoras a llevar a cabo en la zona por ambas partes durante los próximos tres años. En este sentido, ambas instituciones se han mostrado satisfechas ante los avances que se han dado durante estos meses y la postura dialogante mostrada.

La firma de este acuerdo se llevará a la Junta Rectora de la Mancomunidad de Enirio Aralar y, siguiendo con la dinámica del programa Goilarre de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se compartirá con los ganaderos.



Arantxa Ariztimuño, Xabier Arruti, Adur Ezenarro y Mikel Arteaga durante la firma del acuerdo. 29 de abril de 2024.

## Proyecto Goilarre: Mejorando los pastos de montaña

El proyecto Goilarre, iniciado en 2020, es otro ejemplo destacado del compromiso de la Diputación con la mejora de los pastos públicos de montaña. Este programa se basa en la colaboración entre ganaderos, ayuntamientos y la Diputación, y ha logrado avances significativos en la gestión de los recursos naturales.

En el último año, el proyecto ha realizado talas en 654 hectáreas en 35 montes, quemas controladas en 20 hectáreas, y ha instalado 9.400 metros de cerramientos y vallas en 11 montes. Además, se han añadido tres nuevos pasos canadienses y renovado otros tres, mejorando así la infraestructura y facilitando la labor de los ganaderos. Estas acciones no solo mejoran la calidad de los pastos, sino que también promueven una gestión más sostenible y eficiente de los recursos naturales.



## Gipuzkoan 2.932 nekazarik jasoko dituzte NPBren zuzeneko ordainketak

Eusko Jaurlaritzak ordaintzeke dauden esku-hartzeak ordaindu ditu, Europako Nekazaritza Funtsaren (NBEF) kontura finantzatutako zuzeneko ordainketen bidez. Ordainketa horiek 2023-2027 NPBren barruan daude, eta 2023an laguntza eskatu zuten ustiatagietako titularrek jasoko dute. Gipuzkoari 9,6 milioi euro egokitu zaizkio, eta 2.932 nekazari izango dira ordainketa horiek jasoko dituztenak.



# Mingain urdinaren aurkako txertaketa boluntarioa jarriko du martxan Aldundiak

## Mingain urdina gaitzaren 29 serotipo ezberdin identifikatu dira

Gaur egun, Gipuzkoako behi- eta ardi-aziendak Mingain urdinaren eraginpean egoteko arrisku larrian daude, gure inguru hurbilean bizi duten egoeragatik:

- 2023. urtearen amaieran, Kantauri isurialdean, 4. serotipoaren Mingain urdineko fokuak deklaratu ziren (Galizia, Asturias, Kantabria)
- Frantziak behin eta berriz detektatu ditu 8. serotipoaren Mingain urdinaren kasuak, aurtan Girona eta Bartzelona probintzien zehar zabaldu egin dena

Eltxoek transmititutako gaixotasun bektoriala denez, gure lurraldean gaixotasuna gertatzeko arrisku handia dagoela aurreikusten da.

Mingain urdina eskualde edo herrialde batean agertzeak ondorio sanitario eta ekonomiko handiak ditu. Mingain urdinaren osasun protokoloak, gaixotasunaren foku baten aurrean, animaliak lekualdatzean murrizketak ezartzen ditu, eta baita derrigorrezko txertaketa kanpaina martxan jartzea ere, gaur egun, txertaketa baita neurrikeraginkorra gaixotasunari lotutako galerak minimora murrizteko eta infektatutako animalien zikloa eteteko. Txertaketa eraginkorra izan bitartean, animaliak eremu garbietara mugitu ahal izateko desintsektazioak eta PCR kontrolak egin beharko zaizkie.

Lurralde Oreka Berdea Departamentutik, Mingain urdinaren 4. eta 8. serotipoen aurkako txertoaren 125.000 dosi erostea erabaki da. Erosketa honen helburua lurraldeko behi- eta ardi-abeltzainei txertoa beren borondatez jartzeko aukera eskaintzea da.

Txertaketa boluntarioak aukera emango du animaliak birusetik babesteko eta, balizko foku baten deklarazioaren aurrean, lurraldean aplikatu beharko diren mugimenduak murrizteko neurriek ustiatzeari ahalik eta eragin txikiena eragitea saihesteko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko ditu txertoa jartzeko gastuak. Aldundiak antolatzen duen txertaketa kanpainaren barruan egiten diren ekintzak bakarrik diruz lagunduko ditu, bi ekintza abelgorrien kasuan eta bakarra ardietan. Kanpainatik kanpo egiten diren txertaketak abeltzainak ordaindu beharko ditu.

Txertaketa irailan hasiko da. Horretarako, **programarekin bat egin nahi duten abeltzainek 943 08 38 88 telefonora deitu beharko dute abuztuaren 31 baino lehen.**

### Abeltzaintzako osasun mahai teknikoak sortu da

Ganaduaren osasun-maila handia ziurtatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak Osasun mahai teknikoak sortu du. Mahaia honen helburua da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta abeltzaintza sektorearen arteko lankidetzaren gunea sortzea eta ondorioz, komunikazio eta koordinazioa bermatzea.

Mahaia honen eginkizunak besteak beste, ustialekuen osasun-egoerari buruzko informazio eguneratua ematea, kanpaina sanitarioen antolaketa eta emaitzak, osasun-alerten kudeaketa, araudi sanitarioaren eguneratzea eta kontrol-programen hobekuntzak proposatzea dira. Gainera, mehatxu berriak identifikatzea eta sektoreari informazioa helaraztea izango da bere zeregina.

Mahaia ordezkariak iraunkor batez osatuta dago: GFAko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sustapen eta Osasun Zerbitzuko bi teknikari, sindikatuetakako bi ordezkari, behi-, ardi-, ahuntz-, behor- eta hegazti-sektoreetako ordezkariak, eta albaitari kliniko bat.

Osasun Mahai teknikoak, gutxienez urtean bitan elkartuko da: lehen bilera otsailean egingo da, ardi-aziendaren kanpaina amaitu eta behi-aziendaren kanpaina hasten denean, eta bigarrena ekainaren amaieran, behi-aziendaren kanpaina amaitzen denean. Lehen bilera uztailaren 31 baino lehen.

# La importancia de sensibilizar a la ciudadanía

La Diputación Foral de Gipuzkoa reconoce la importancia de involucrar a la ciudadanía en la valoración del primer sector. Para ello, ha llevado a cabo varias actuaciones de divulgación y sensibilización.

## Generar conciencia y aprecio por el trabajo de los y las ganaderos/as de Gipuzkoa

La ganadería de Gipuzkoa desempeña un papel fundamental en la conservación del medio ambiente y la economía local. El trabajo diario en los pastos no solo garantiza la producción de alimentos frescos y saludables, sino que también contribuye al cuidado y la mejora de nuestros ecosistemas. En 2024, por ejemplo, 625 ganaderos y ganaderas de Gipuzkoa han subido más de 44.094 cabezas de ganado a los pastos de 31 montes, incluyendo 522 cabras, 3.134 vacas, 37.149 ovejas y 3.289 caballos. Esta actividad es crucial para el mantenimiento de los paisajes y la biodiversidad de Gipuzkoa.

Visibilizar la labor que realizan los y las ganaderos/as de Gipuzkoa es esencial para la conservación ambiental, la preservación cultural, el apoyo a la economía local. Por ello, este año, con la implicación de personajes conocidos como Leire Martínez, cantante de la Oreja de Van Gogh y Jon Fernández, comunicador de Gaztea Irratia, se ha visibilizado la apertura de pastos. Ambos han seguido y compartido dicho evento en sus redes sociales y han generado conciencia y aprecio por el trabajo de los y las ganaderos/as de Gipuzkoa.



**Xabier Martiarena**  
Pikoketa baserria  
(Oiartzun)

“Nik Pirenaika arrazako haragitarako behiak ditut. Familiatik datorkidan lanbidea da. Maiatzaren 1etik aurrera aterako ditut behiak larreetara, urriaren amaiera arte. Larre publikoak etxe ondoan ditut, beraz ez dut bide luzea egin behar, eta egunero bertaratzeko aukera dut. Abereak mendiko lorezainak direla esan dezakegu, gure zelaiak eta ingurune naturalaren zaintzaile eta, horiek izugarritzko onura egiten diote gure inguruneari. Habitata mantentzen dituzte eta larreak dituzten arriskuak ekiditen dituzte: suteak eta bestelakoak”.



**Juanito Irastortza**  
Azku baserria  
(Oiartzun)

“100 ardi inguruko artalde bat dut, Ardi Latxa arrazakoak. Horiekin ardi esnea eta arkumeak ekoizten ditut. Esnearekin gazta ere egiten dut. Artaldearen zati bat maiatzean igoko dut, eta bestea ekainean. Bi orduko bidea dut, artzain txakurrak ditudan arren, ni jarduten naiz lan honetan. Ni astean lau egunetan igotzen naiz mendira, guztia ondo dagoela ziurtaraztera. Hurrengo hilabeteetan abereak aske egongo dira, eta, euren beharren arabera elikatu eta lasaitasunez biziko dira, bertako biodibertsitatea mantentzen laguntzen duten bitartean”.

## Parques Naturales de Gipuzkoa: El entorno donde se aúna el cuidado del mediambiente y la actividad del primer sector

Con el objetivo de conocer, amar y cuidar de nuestro entorno en armonía y preservando el equilibrio territorial verde, la Diputación Foral de Gipuzkoa en colaboración con cuatro de los municipios integrantes de la red de Parques naturales de Gipuzkoa, ha organizado los días de los Parques Naturales de Gipuzkoa. Estas jornadas han permitido dar a conocer a la ciudadanía la riqueza que ofrece este entorno natural a través de un enfoque sostenible que contempla la triple vertiente: social, económica y medioambiental.

El día de los Parques Naturales de Gipuzkoa se ha celebrado en cuatro días y lugares diferentes:

- Domingo, 26 de mayo: Aiako Harria (Oieleku, Oiartzun)
- Domingo, 2 de junio: Aizkorri-Aratz (Garagartza, Arabako eta Gipuzkoako Partzuegoa)
- Sábado, 8 de junio: Pagoeta (Iturrangaña, Aia)
- Domingo, 16 de junio: Aralar (Esnaurreta-Pikueta, Enirio-Aralarko Mankomunitatea)

Cada jornada comenzó con un paseo por el monte, permitiendo a los participantes disfrutar de la belleza natural de Gipuzkoa. Posteriormente, se realizó una liberación de aves recuperadas en el centro Basa Bizi, simbolizando el compromiso con la conservación de la fauna local. Además, hubo una demostración de la actividad ganadera de la zona, resaltando la importancia del sector agroganadero para su entorno.

La música del grupo Et Incarnatus, amenizó las jornadas, proporcionando un ambiente festivo y cultural. Los asistentes también pudieron degustar y comprar quesos locales, disfrutando de una experiencia gastronómica que destacó los productos de la región.

Cabe destacar que sin la colaboración de los alcaldes de y entidades de Aia, Ataun, Oiartzun y Zegama la organización de estas jornadas hubiese sido imposible.



*Aiako Harria Natura Parkearen eguna. Maiatzak 26.*

## Los miembros de los patronatos de los Parques Naturales de Gipuzkoa se han reunido para repasar las actuaciones que se van a llevar a cabo en los cuatro Parques Naturales de Gipuzkoa

Entre los aspectos en que se ha acordado abordar en el presente año son destacables las inversiones que se prevén realizar en la mejora y el mantenimiento de los bosques y pastos públicos de la zona, el cuidado de la fauna y flora del territorio, la mejora de sus cuencas, la eliminación de la flora exótica, la protección de las especies amenazadas y la preservación del patrimonio cultural.

# El proyecto LIFE Oreka Mendian ha sido galardonado por buenas prácticas de conservación de la biodiversidad

Le han otorgado el Premio Natura 2000-2024 en la categoría de Cooperación Internacional.

La red ecológica europea Natura 2000 tiene como objetivo asegurar a largo plazo la supervivencia de los hábitats y especies más valiosos y amenazados de Europa. En Gipuzkoa hay 18 espacios Natura 2000 que cubren más de 40.019 hectáreas y representan más del 20,2% de la superficie del territorio.

Para promover y reconocer las mejores prácticas de conservación en los espacios de la red Natura 2000, la Comisión Europea ha lanzado los Premios Europeos Natura 2000. Estos premios se celebran anualmente y buscan destacar la utilidad e importancia de la red para la protección de la biodiversidad y su contribución a la conservación global, reconociendo la excelencia en la gestión y promoción de sus objetivos.

En este contexto, el proyecto LIFE Oreka Mendian ha sido galardonado con el prestigioso Premio Natura 2000-2024 en la categoría de Cooperación Internacional. Este reconocimiento, pone de manifiesto la excelencia y el impacto positivo del proyecto en la conservación de la biodiversidad y los entornos naturales en los montes vascos.

## LIFE Oreka Mendian: Un proyecto de conservación y desarrollo sostenible

LIFE Oreka Mendian, iniciado hace seis años, se centra en la promoción del pastoreo ordenado en 24 espacios de montaña del País Vasco, con 15 ubicaciones en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y 9 en el Iparralde. El objetivo principal del proyecto es la restauración y preservación de los pastos de montaña, un ecosistema complejo que ha sido tradicionalmente mantenido por la actividad ganadera. La disminución de la ganadería extensiva ha puesto en riesgo estos hábitats, considerados entre los más amenazados de Europa.

La financiación del proyecto proviene del instrumento financiero LIFE, y cuenta con la colaboración de ocho socios principales, incluidos HAZI Fundazioa, el Centro Tecnológico Agrario NEIKER, las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, Euskal Herriko Laborantza Ganbara, el Conservatorio de Espacios Naturales de Nouvelle Aquitaine y EUROMONTANA.



Representantes de Hazi recogiendo el premio Europeo Natura 2000-2024 el 30 de mayo en Bruselas.

## Life Oreka Mendian: actuaciones en Gipuzkoa y resultados destacados

Las actuaciones en Gipuzkoa han resultado en la restauración de más de 1.670 hectáreas de hábitats pascícolas, mejorando la calidad de los pastos y la biodiversidad local.



### Jaizkibel

#### Restauración de los pastos y la mejora de la gestión ganadera

Se ha trabajado en la recuperación de áreas degradadas y la implementación de prácticas de pastoreo sostenibles. Además, se ha promovido la formación de los ganaderos locales, aumentando su capacidad para gestionar los recursos de manera eficiente y sostenible.

### Aiako Harria

#### Restauración de hábitats pascícolas y la mejora de la conectividad ecológica

Se ha llevado a cabo un monitoreo exhaustivo de la flora y fauna locales, permitiendo ajustar las prácticas de pastoreo para maximizar los beneficios ecológicos. La colaboración con los ganaderos ha sido clave para mantener la biodiversidad y mejorar la calidad de los pastos.

### Hernio

#### Reintroducción de prácticas tradicionales de pastoreo

Se han restaurado infraestructuras ganaderas y se han creado planes de gestión específicos para las áreas de pastoreo. La participación de la comunidad local ha sido esencial para garantizar el éxito de estas iniciativas, fomentando un sentido de pertenencia y responsabilidad hacia el medio ambiente.

### Aralar

#### Gestión integrada de los pastos y mejora de la calidad de los suelos

Se han realizado estudios detallados sobre la capacidad de carga de los pastos y se han implementado medidas para prevenir la sobreexplotación. Además, se ha trabajado en la sensibilización de los ganaderos sobre la importancia de la biodiversidad y la conservación de los hábitats naturales.

### Pagoeta

#### Restauración de pastos y mejora de la gestión ganadera

Las acciones incluyeron la reintroducción de prácticas tradicionales de pastoreo y la restauración de infraestructuras necesarias para el manejo del ganado. Se han implementado técnicas de monitoreo para evaluar el impacto del pastoreo en la biodiversidad local, promoviendo así una gestión sostenible de los recursos.

### Izarraitz

#### Recuperación en áreas degradadas y mejora de la conectividad ecológica

Se ha llevado a cabo la restauración de pastizales y se han proporcionado recursos educativos a los ganaderos para fomentar prácticas sostenibles. Estas intervenciones han resultado en una mejora notable de la biodiversidad y la calidad del suelo.



# Gipuzkoako Foru Aldundiak emakumezkoen txirrindularitza babestu du BSTK Basotik Fundazioaren bidez

Babes hitzarmen bat sinatu du aurten LABORAL Kutxa-Euskadi Fundazioa talde profesionalarekin.

BSTK Basotik Fundazioak eta Euskadi Fundazioak 2024 denboraldirako babes-akordioa sinatu dute. Lankidetzaz hori LABORAL Kutxa-Euskadi Fundazioa taldeko 17 kirolariek denboraldian zehar egingo diren lasterketetan jantzita damaraten kulotearen atzealdean islatu da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak talde honekin funtsezko hiru balio edo apustu nagusi partekatzen ditu: berdintasunaren aldekoa, kirolaren aldekoa, ongizatearen eta bizitza osasuntsuaren iturri gisa, eta iraunkortasunaren eta gure ingurune naturalarekin harmonian eta orekan egongo den etorkizunaren aldekoa. Baita talde-lanaren, errespetuaren eta ahaleginaren kulturaren garrantzia ere.

## Usoa Ostolaza, garaile Espainiako Txirrindularitza Txapelketan

Usoa Ostolazak urrea irabazi zuen Espainiako Txirrindularitza Txapelketan; kirol nazionalen etorkizun oparoa izango duen txirrindularietako batean bihurtu da. Gipuzkoarrak bere talentua eta erabakitasuna erakutsi zituen lehian. Garaipen honek bere dedikazioa eta esfortzua azpimarratzen ditu. Txapela honekin, Usoa Ostolaza Espainiako txirrindularitzaren erreferente bihurtu da.



**Usoa Ostolaza**  
Espainiako txapeladuna

“Denboraldi berezia izaten ari da niretzat. Nik uste urtero berdina esaten dudala, baina, denboraldi hau benetan berezia da bai niretzat eta baita taldearentzat ere. Esango nuke honen arrazoi nagusia munduko lasterketa garrantzitsuetan lehen aldiz parte hartzea dela. Horrez gain denboraldi hasieratik orain arte aurrerapauso handiak ematen ari gara talde moduan. Pixkanaka hazten eta hobetzen goaz, helburu garbiak izanik buruan, eta bide honetatik jarraitzeko asmoz.

BSTK Basotik Fundazioa bezalako babesle bat edukitzea garrantzitsua izateaz gain beharrezkoa da nire iritziz. Talde hau euskalduna da, harrobi bat eraikitzen dabilena, jarraitzaile euskaldun asko dituen... nortasun sendo bat duena. Eta nortasun hori islatzeko eta denboran irauteko gakoa neurri handi batean, babesle euskaldunak edukitzea da. Bestalde, harro gaude BSTK Basotik Fundazioa bezalako entitate publiko bat babesle izateaz, non beraien helburuetako bat, jasangarritasunean oinarrituz, gure basoen desagertzea ekiditea den”.



# “Gizarteak berak eskatzen digu naturaren kontserbazioa modu egoki eta eraginkorrean lantzea”

## Aitor Lekuona

Basanimalien eta Landareen zerbitziburua

Aitor Lekuona Biologoa da. Ingurumen eta Lurralde Ikasketetako masterra burutu zuen eta 20 urte daramatza Gipuzkoako Foru Aldundian lanean. Egun, Basanimalia eta Landareen zerbitziburua da eta eskarmentu handia dauka Gipuzkoako Foru Aldundiko natur zaintzaren inguruko proiektuak kudeatu eta zuzentzen. Hala, duela gutxi zerbitzuburu izendatu dute eta gogotsu ekin dio erronka berri honi.

### Zu hobeto ezagutzeko ... zer suposatzen du lan honek zuretzat?


Nire kasuan, naturarekiko dudan pasioa lanbide bihurtzea izan da, beraz, bereziki motibatzen nauen lana da. Ikuspegi proaktiboarekin egiten dut lan, proiektu berriak garatzen saiatuz.

### Zein da Basa animalia eta landareen zerbitzuaren funtzio nagusia?

Zerbitzu gutxi egongo da Aldundian, bere baitan hainbeste eskumen biltzen dituen. Asko laburtuta, babestuta dauden basa animalia eta landare espezie eta habitataz arduratzen gara. Helburua da horien egoera hobetzea, espezie inbaditzaileen kontrola, ibai eta itsasadarretan kokatutako Natura 2000 sareko espazioen kudeaketa eta, ehiza eta arrantza kontinentala kudeatuz.

### Zein proiektu dituzue momentu hauetan martxan?

Egun, hainbat proiektu ditugu martxan, hala nola, LIFE Kanturibai, LIFE Cortaderia, Natura 2000 sarean Jaitzubian eta Inurritzan padurak berreskuratzeko proiektua, Aingira berreskuratzeko plana, galtzeko arriskuan dauden (ugatza, miru gorria, muturluzea, bisoi europarra...) espezieak berreskuratzeko ekintzak...



“ Zerbitzu gutxi egongo da Aldundian bere baitan hainbeste eskumen biltzen dituen ”.



# Bertako espezieen biziraupena bermatzen Gipuzkoako ibaietan

**Bertako espezieen zaintza eta babesa funtsezkoa da ekosistemen oreka berdeari eusteko eta biodibertsitatea bermatzeko. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak urteak daramatza Gipuzkoako ibaietan topatzen diren tokiko espezieak berreskuratzeke lanetan.**

## Izokinen errekupeazio plana

Izokin arruntaren (*Salmo salar*) berreskuratzea 1990eko hamarkadan hasi zen, Gipuzkoako ibaietatik erabat desagertu baitzen, aurreko hamarkadetan bizitako industrializazioak eragindako ur-kutsaduraren ondorioz. Azken hogeita hamar urteotan egindako lanaren ondorioz, gaur egun, Gipuzkoako ibaiak espezie horretako aleak dituzte, eta urtero itsasoaren 100 ale inguru sartzen dira gure ibaietara ugaltzeko. Ekainean eta uztailean izokin handiak sartzen dira (negu anitzekoak ere esaten zaie hauei, negu bat baino gehiago igaro baitute itsasoan), aurtan 27 izokin sartu dira Urumean eta 20 Orian.



Xabier Arruti izokinak askatzen ekainaren 4ean.

## Kantauribai

Espeziea birpopulatzeko egiten ari den lanaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundia, lurraldeko biodibertsitatea zaintzeko eta berreskuratzeke apustuan, LIFE Kantauribai proiektuan murgilduta dago 2022tik. Proiektu horren helburua da ibai ekosistemei lotutako espezieen eta habitaten kontserbazio egoera hobetzea. Hobekuntza horiek Natura 2000 Sareko 15 gunetan garatzen ari dira, Bizkaiko golgora urak isurtzen dituzten ibai eta ibaiadarretan, Nafarroa, Gipuzkoa eta Akitaniak partekatzen dituzten bost ibai-arrotan, alegia. Arro horien artean daude Oria ibaikoak eta Urumeakoak.

Proiektu honen baitan 10 milioi euro inbertituko dira guztira, besteak beste, ibai oztopoak kentzeko eta arrainak igarotzeko bestelako oztopoak iragazkor bilakatzeko, izokinaren eta beste arrain espezie batzuen fluxua bermatze aldera ibaien etenak murrizteko, igarotzen diren arrainen kontrola eta jarraipena egiteko sistemak instalatzeko ahalik eta giza esku-hartze txikiarekin, eta zentral hidroelektrikoetako presek arrainen migrazioan duten inpaktua murrizteko, izokin populazioen tamaina % 10 handitzeaz gain.

## Aingira berreskuratzeke plan integrala

Gipuzkoako ibaietan aingiren populazioak behera egin duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak espezie horren Berreskurapen Integralerako Plan bat egin du, hamar urteko iraupena izango duena (2024-2034). Plan horren alderdi azpimarragarrien artean daude habitata hobetzeko eta estuario, padura eta ibai-sareko habitatak lehengoratzeko neurriak.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu duen beste neurrietako bat da legez kanpoko trafikoan antzemandako angulak ibaira bueltatzea; neurri honi esker, 800 kilo askatu dira, hau da, 2 miloi angulatik gora.

# Desarrollo e innovación: la clave para el avance de las zonas rurales de Gipuzkoa

Las zonas rurales de Gipuzkoa son un pilar fundamental para la identidad cultural, la sostenibilidad ambiental y el desarrollo económico del territorio. Sin embargo, para asegurar su viabilidad y prosperidad a largo plazo, es crucial fomentar el desarrollo y la innovación. Con el objetivo de obtener una zona rural más próspera en Gipuzkoa, la Diputación Foral de Gipuzkoa lleva a cabo varias actuaciones:

1. **Línea de ayudas dirigidas a mejorar la calidad de vida de las personas del primer sector.**
2. **Promoción de viviendas.**
3. **Líneas de ayudas para mejorar las zonas rurales y promover el emprendimiento y la innovación.**
4. **Impulso a los subsectores del primer sector.**



# 1. Línea de ayudas dirigidas a mejorar la calidad de vida de las personas del primer sector

## Ayudas destinadas a servicios de sustitución

La Diputación Foral de Gipuzkoa un año más ha abierto la convocatoria de ayudas para el primer sector destinadas a servicios de sustitución en las explotaciones agrarias de Gipuzkoa.

Este programa es muy importante cualitativamente porque permite, sabiendo que el trabajo del baserri conlleva una gran dedicación, que puedan tener un respiro en determinadas circunstancias. Así, el programa sufraga parte del coste de la sustitución de una persona durante su ausencia del trabajo en determinadas situaciones: enfermedad, vacaciones, maternidad/paternidad, etc., a fin de mejorar las condiciones de trabajo y aumentar la calidad de vida de estas personas. El año pasado un total de 42 explotaciones recibieron esta ayuda.

El importe de la ayuda será del 70 % de los costes de la prestación de los servicios de sustitución, debiendo abonar las personas destinatarias del servicio de sustitución mínimamente el 30 % del coste del servicio.

Documento para realizar la solicitud:

[labur.eus/Wnd5X](http://labur.eus/Wnd5X)



## Ayudas para la contratación de seguros agrarios

Otra de las convocatorias que la Diputación Foral de Gipuzkoa abre anualmente es la destinada a contrataciones de seguros agrarios.

El objetivo de esta ayuda es apoyar a las personas del primer sector en la gestión de riesgos derivados de fenómenos climáticos adversos. La Diputación Foral de Gipuzkoa financia el coste de la contratación de seguros agrarios y busca fomentar la suscripción de seguros agrarios combinados, que cubran daños a cultivos, ganado y otros activos agrícolas, proporcionando una red de seguridad financiera. El año pasado un total de 155 explotaciones recibieron esta ayuda.

Las ayudas consisten en:

- Una subvención del 25 % del importe de la prima total en el caso de contratación de nueva póliza
- Una subvención del 15 % del importe anual de la prima total en el caso de renovación de una póliza, excepto para la línea de encefalopatía espongiiforme bovina, para cuya renovación se otorgará un 25 % del importe de la prima

Documento para realizar la solicitud:

[labur.eus/2of1Y](http://labur.eus/2of1Y)



# 2. Promoción de viviendas

Para muchas personas jóvenes residentes en los pequeños municipios de Gipuzkoa, vivir en su pueblo natal no es una cuestión de comodidad, sino también de identidad y arraigo. La falta de oferta inmobiliaria ha hecho que durante muchos años, las personas jóvenes se vean obligadas a mudarse a pueblos/ciudades más grandes.

Con el objetivo de ofrecer acceso a viviendas accesibles en los municipios más pequeños de Gipuzkoa, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha identificado 13 municipios, todos ellos con menos de mil habitantes y en descenso, un mayor tiempo de desplazamiento a la capital, carreteras principales u hospitales, un menor nivel de renta...

Además de ofrecer una solución a la falta de viviendas, este proyecto también tiene como objetivo revitalizar los municipios rurales y fortalecer el tejido social de los mismos.

## Promociones que están en desarrollo

Tras la adquisición de dos inmuebles en Abaltzisketa y Beizama a finales de 2022, se han derribado los edificios obsoletos ubicados en estas zonas y los solares ya están preparados para acoger nuevas edificaciones.

En los próximos meses se llevarán adelante las licitaciones para su redacción. La idea es que las obras de construcción comiencen en la primera mitad de 2025. En Abaltzisketa se promocionarán diez viviendas en dos fases a través de la colaboración entre Etorlur y el Ayuntamiento, mientras que en Beizama se espera desarrollar cuatro o cinco viviendas.



### 3. Líneas de ayudas para que las zonas rurales de Gipuzkoa sean más vivas

Anualmente la Diputación Foral de Gipuzkoa publica líneas de ayudas destinadas a fomentar el emprendimiento e innovación de las zonas rurales de Gipuzkoa. Estas subvenciones buscan impulsar proyectos que promuevan el desarrollo sostenible, la diversificación económica y la modernización de infraestructuras en áreas rurales. Estos son algunos de los proyectos que se han desarrollado gracias estas líneas de ayudas:



#### Premio LandanEkin a la innovación: Desarrollo de quesos azules a partir de leche de cabra

Nagore Martín es una joven de Soraluze que hasta ahora producía queso de pasta prensada. Con el objetivo de diversificar su actividad, ha desarrollado un queso de alto valor que le permite mejorar la competitividad del negocio. El queso que Nagore ha desarrollado ha sido un queso azul elaborado a partir de leche de cabra.



**Nagore Martín**  
Creadora del proyecto

“Hasta ahora siempre he hecho queso de pasta prensada. Con el objetivo de llegar a más clientes y diversificar mi producto, comencé a hacer queso azul. Las últimas elaboraciones están teniendo mucha aceptación; la gente está esperando. Creo mucho en el producto local, y mi objetivo es llegar a un mayor número de clientes con esta diversificación”.



#### Reforma del frontón de Altzaga

Altzaga es un municipio de 166 habitantes. El frontón es el centro de encuentro y actividad deportiva del municipio, y está siendo rehabilitado para resolver problemas de agua y mejorar la eficiencia energética. La reforma incluye el cerramiento adecuado del espacio y la sustitución del alumbrado por tecnología LED de bajo consumo, promoviendo actividades deportivas, culturales y sociales en mejores y más sostenibles condiciones.



**Maite Garmendia**  
Altzagako alkatea

“Obra honi esker, gure frontoia, egoera hobean egongo da, eta, horrela, kirol-, kultura- eta gizarte-jarduerak modu jasangarriagoan eta irisgarriagoan sustatuko dira bizilagun guztientzat, baita eguraldi txarra egiten duenean ere”.




### Premio LandanEkin-La Caixa "Rural Talent": Terapia con burros para personas con discapacidad

A.S.T.O.K.A es un proyecto que llevaba durante años en la mente de Rakel pero que por circunstancias de la vida, lo ha desarrollado hace poco. A.S.T.O.K.A tiene como objetivo la salud física y emocional de las personas mediante acciones y sesiones alternativas en contacto con el burro autóctono. Este proyecto ofrece terapia a personas discapacitadas a través del contacto del burro. De esta manera, establece una nueva utilización del burro de raza autóctona en grave riesgo de extinción.



**Rakel Irigoien**  
Creadora del proyecto  
A.S.T.O.K.A

"Hasta ahora, el proyecto ha tenido muy buena acogida. Es el único en Gipuzkoa, y ya han participado 150 personas. La conexión que se crea entre el burro y la persona es muy especial. Nuestro reto es colaborar con organizaciones sociales, sanitarios y/o de educación para realizar terapias e investigar los beneficios de los animales en el bienestar de las personas".




### Rehabilitación de "Ostatu Zaharra pentsioa" en Beizama

"Ostatu Zaharra pentsioa", que funciona como bar-restaurante y punto de encuentro para residentes y visitantes, ha sido renovado para mejorar las infraestructuras como son el alumbrado, puertas, muebles, baños... e incluir un espacio destinado a la venta de productos locales.



**Pedro Mari Otaegi**  
Beizamako alkatea

"Ostatuaren birgaitzea oso positiboa izanda Beizamako herritarrentzat. Azpiegiturak modernizatzeaz gain, tokiko produktuak saltzeko gune bat ere sortu dugu. Proiektu honek herritarren elkargune bakarra biziberritu du, inguruko baserriarren lana ikusaraziz eta beharrezko denda zerbitzua eskainiz".



### Se ha construido un ascensor en la Oficina Agraria de Tolosa

**La Diputación Foral de Gipuzkoa ha construido un ascensor en el edificio que se ubican la Oficina Comarcal Agraria de Tolosa, Tolomendi y EHNE**

Con el objetivo de mejorar la accesibilidad de las personas que acuden a la Oficina Comarcal Agraria de Tolosa, Tolomendi y EHNE, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha construido un nuevo ascensor. Este proyecto ha contado con una inversión de 269.301 euros y tiene como objetivo que las personas con movilidad reducida o con dificultades de movilidad tengan acceso a servicios esenciales.

Con la instalación de este ascensor se elimina una barrera física significativa, facilitando el acceso a los servicios esenciales y fomentando una mayor autonomía para todos los usuarios.

## 4. Impulso a los subsectores del sector primario

Los subsectores del primer sector guipuzcoanos, son fundamentales para la innovación y competitividad del entorno rural. Su capacidad para adaptarse y evolucionar en un contexto económico desafiante no solo asegura su supervivencia, sino que también contribuye al desarrollo sostenible y al bienestar de la comunidad rural. Es por ello, que la Diputación destina al año cerca de 2 millones de euros en impulsar su actividad.

Euskaber es una cooperativa agrícola especializada en la producción y comercialización de huevos camperos y ecológicos, que tiene como objetivo promover prácticas agrícolas sostenibles y respetuosas con el medio ambiente.

Actualmente Euskaber trabaja con 34 baserritarras y comercializa aproximadamente 5.000.000 de huevos al año en diferentes comercios de KM0 ubicados en Gipuzkoa, Bizkaia, Álava y Navarra. Asimismo, Euskaber ofrece a las personas agricultoras apoyo técnico y asesoramiento continuo, acceso a mercados más amplios, condiciones comerciales justas y promoción de prácticas sostenibles. Para ser parte de la cooperativa, la persona interesada debe ponerse en contacto con la cooperativa, expresar su interés y cumplir con los requisitos establecidos.

Euskaber apoya el desarrollo rural y contribuye a la economía local mediante la generación de empleo y el fomento de la agricultura ecológica en la región.



Maidier y Ekaitz, baserritarras de Euskaber.



# “Nuestra premisa es que el baserritarra pueda vivir de forma digna del y en el caserío”



## Karmele Pikabea

Gerente de Euskaber

### ¿Cómo contribuye Euskaber a la rentabilidad del baserritarra de Gipuzkoa?

El desarrollo rural es el objetivo principal y el fundamento de todas las decisiones de Euskaber.

El huevo es el medio que tenemos para seguir siendo coherentes con la premisa de Euskaber: que el baserritarra pueda vivir de forma digna del y en el caserío. De hecho, los baserritarras son socios, a partes iguales, de la cooperativa y todos los beneficios revierten en ellos.

En Euskaber solo producimos huevos camperos y ecológicos, en granjas pequeñas, promoviendo la agricultura familiar.

### ¿Cómo está afectando la complicada situación actual (subida de precios, incertidumbre...) a Euskaber y al sector avícola en general?

El factor geopolítico juega un papel fundamental. Cada vez hay más variables incontrolables que trascienden en nuestro funcionamiento.

Para Euskaber, el precio del pienso es el mayor coste variable (supone aproximadamente un 70%) y el incremento que este padeció hizo que la cooperativa sufriera mucho, el aumento del precio del pienso, con su consecuente pérdida de rentabilidad, ha hecho que muchos avicultores decidieran no poner más gallinas, si a esto le sumamos la *influenza* aviar, la oferta se reduce de una forma considerable, a nivel mundial, estas circunstancias han hecho que se especule con el huevo y que su precio aumente ante el descuento de la oferta, aunque este no sea el caso de Euskaber.

### ¿Cómo influye el compromiso de los baserritarras en la calidad de los productos que ofrece Euskaber?

El trabajo e implicación de cada uno es fundamental. Todos los baserritarras trabajan con los mismos estándares de calidad, ya que el cliente final no debe notar la diferencia que hay entre los huevos venga de la granja que venga.

Asimismo, el tener el sello Eusko Label, además de certificar el origen, certifica que el producto tiene una calidad suprema. Cada año tenemos varias auditorias: Eusko Label, las nuestras propias, las de bienestar animal... todas ellas garantizan tanto la trazabilidad alimentaria como la calidad del producto.



Jokin Gorospe, baserritarra de Euskaber

# Baserritar Misto Profesionala aurrera bidean

Belaunaldien berrikuntza eta erreleboa sustatzeko asmoarekin, aurreko Gure Lurra aldizkarian aipatu genuen moduan, Gipuzkoako Foru Aldundia aurrera pausoak ematen ari da Baserritar Misto Profesional programak aurrera egin dezan. Programa honen helburua da Gipuzkoako lehen sektorea mantendu eta indartzea eta horretarako baserria beste jarduera batekin bateratzen duten baserritarrei jarduera bi hauek uztartzeko lan murrizketa bat hartzeko aukera eman nahi zaie.

Xabier Arruti, Lurralde Oreka Berdeko diputatua, Arantxa Ariztimuño, Nekazaritza eta Lurralde Oreko Zuzendaria, Mikel Azpiri, nekazaritza eta abeltzaintzako sustapen eta osasun zerbitziburua, eta Jesus Mari Eizagirre, laguntzen eta erregistroen zerbitziburua, pasa den hilabeteetan programa honen oinarriak definitzen aritu dira Gipuzkoako enpresa sareko eragile eta baserritarrekin, hurrengo hilabetei begira deialdiaren xehetasunak itxi eta argitaratzeari begira.

Xabier Arrutiren hitzetan “gure lurralde oreka eta elikadura jasagarria bermatzeko eragile estrategikoak dira gure baserritarrak eta hortaz, bi jarduerak uztartu ahal izateko beharrezkoak diren tresnak eman behar dizkiegu mistoak diren baserritar hauei, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueraren alde eginez, hori baita, normalean, enpresa-jardueraren alde pisua galtzen duena”.



## Programa

18 eta 55 urte bitarteko adina duten baserritarrei zuzendua dago programa. Parte hartzeko Gipuzkoan ustiategia izan beharko du eta besteren konturako langilea izan beharko du lanaldi osoko lan-kontratu mugagabearekin eta 18 hilabeteko antzintasunarekin. Enpresa-jardueran lehenengoz % 50eko kontratuarekin hasten diren pertsonak ere sartu ahal izango dira programan, beti ere lurraldean ustiategia baldin badute.

Enpresaren aldetik, programa honetan parte hartzeko baldintza nagusia jarduera lehen sektoreari lotuta ez egotea da.

Programak sei urteko iraupena izango du. Gipuzkoako Foru Aldundiak baserritarra eta enpresa ekonomikoki konpentsatzea aurrekusi du bi alderdien errentagarritasuna bermatzeko egingo den lan murrizketaren ondorioz. Horrela, zati bakoitzari 30.000 euro ematea aurrekusten da, kantitate hau, programan aurrera egin ahala, zatika kobratuko da

Laguntza eman ondoren, eta konpentsazio ekonomikoa kobratzeko, baserritarrak ustiategiaren titularra izan beharko du, Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren alta emanda egon beharko du Baserritar Mistoaren Profesionala akordioa izateko, eta bideragarritasun-plan bat izan beharko du, seigarren urtean gutxienez 13.300 euroko errentagarritasuna emango diona 0,5 NLU batean.

Bestalde, enpresak baserritarrekin sinatu beharko du akordioa. Akordio horren bidez, honako hauek bermatuko zaizkio: lanaldia % 50 murriztea, ezinbesteko arrazoiengatik enpresara itzultzeko aukera (0 eta 6 urte bitartean) eta sei urterekin lanaldi osora itzultzeko aukera edo lanaldi murriztuan Baserritar Misto Profesionalaren baita.

Udazkenean herriz herri bilerak egingo dira ekimen honen inguruan informazio gehiago eman ahal izateko interesatuei.

“ Ekimen honen bidez espero dugu urtero 30 baserritar atxikitzea programari, bost urteren buruan 150 pertsona baino gehiagok parte hartzen egon daitezen. Guretzat arrakasta izango litzateke programa amaitutakoan baserritarrek % 100ean lehen sektorean aritzeko aukera izatea. Oraingoz, hazia eriteko lanean ari gara, espero dugu sei urte barru fruituak ematea aurten martxan jarriko dugun ekimen honek” .

**Xabier Arruti**  
Lurralde Oreka Berdeko diputatua

# 14 gaztek lehen sektoreari lotutako proiektuak garatuko dituzte Aldundiaren laguntzarekin

Foru erakundeak 611.831 euro bideratu ditu GazteNek programaren bidez nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueraren belaunaldi-erreleboa bultzatzeko.

Lehen sektorean jarduera bultzatzea eta belaunaldien arteko erreleboa bermatzea da Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta gainerako aldundiek sustatutako GazteNek programaren helburua. Gipuzkoako Aldundiak 611.831 euro bideratuko ditu aurrean, 2024an GazteNek programan izena eman duten lurralde honetako 14 gazteei. Bost urtez lan egingo dute, tutorearekin batera, lehen sektorean sartzeko, beren enpresa-proiektua garatuz eta ezarriz.

14 dira GazteNek programaren 2024. edizioan parte hartuko duten gazteak. 28 eta 40 urteko pertsonak dira, horietako bi emakumeak direlarik eta gainerako 12ak gizonak, Gipuzkoako hainbat lekutatik datoz: Aia, Aizarnazabal, Andoain, Aretxabaleta, Berrobi, Bidania-Goizatz, Errezil, Getaria, Idiazabal, Orio eta Zerain.

Aurkeztutako proiektuei dagokienez, frutagintzara eta haragitarako behien hazkuntzara bideratutakoak nabarmentzen dira bereziki, eta horiei esne-behien abeltzaintzarekin eta gazta egiteko arden hazkuntzarekin eta arrautzak ekoizteko hegaztien ekoizpenarekin lotutakoak gehitzen zaizkie. Era berean, adierazgarria da aurkeztutako hamalau proposamenetatik sei elikagaien ekoizpen ekologikoari lotuak daudela.

## Arabara irteera

Aurreko edizioetan bezala, aurrean ere, Iturrarango ekitaldiaren ondoren, parte hartu duten gazteek Legutio, Domaikian eta Luquianon dauden Arabako hainbat ustiategi bisitatu dituzte. Bi eguneko egonaldia bidez, lurralde horretan garatzen ari diren proiektuak ezagutzeko eta sektoreko beste gazte batzuekin harremanak estutzeko aukera izan dute.



# Hirugarren itzultze saioa burutu da eta Aldundiak hartutako konpromisoen betetze-maila aurkeztu du

2024ko ekainaren 15ean, hirugarren itzultze-saioa izan da. Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako konpromiso bakoitzean orain arte egindako ekintzak aurkeztu dizkie batzarkideei.

Konpromisoa:

- Bete da
- Hasi da
- Ez da bete
- Urte horretarako ez zen konpromisorik hartu eta beraz, ez da hasi.

Herritarren Batzarraren Gomendioak	Betetze maila		Epeak
	2023	2024	
Landa eremuko jabeen konpentsazio ekonomiko bat itzuli zerbitzu ekosistemikoetan dituzten ekarpen kopuruaren arabera eta gizarteari balio hauek zabaldu.	1.1	●	2023-2026
	1.2	●	2023-2026
	1.3	●	2023-2027
Baso kudeaketa sustatu, I+G bitartez, sektore estrategikoa bihurtuz.	2.1	●	2024-2025
	2.2	●	2023-2027
	2.3	●	2023-2027
	2.4	●	2023-2027
Lehen sektorea estrategiko bihurtzea, balorazio ekonomikotik ekosistemikora igaroz, tartean diren eragileen partehartzearen bidez.	3.1	●	2023-2027
	3.2	●	2024
	3.3	●	2023-2027
	3.4	●	2024
	3.5	●	2026
Gizartea haurtzarotik kontzientziatzea eta sentsibilizatzea, nekazaritzaren eta klima aldaketaren erlazioari dagokionez.	4.1	●	2023-2024
	4.2	●	2023
	4.3	●	2023
	4.4	●	2023-2024
	4.5	●	2023
	4.6	●	2023
	4.7	●	2023-2024
	4.8	●	2023-2024
	4.9	●	2023-2024
	4.10	●	2023-2024
Lehen sektorea gaztetzeko neurriak aztertzea.	5.1	●	2023-2027
	5.2	●	2023
	5.3	●	2023
	5.4	●	2023-2024
	5.5	●	*
	5.6	●	*
	5.7	●	2023
KM.0 produktuak sustatzea lehenengo ekoizpen-fasetik.	6.1	●	2023- 2025
	6.2	●	2023- 2025
	6.3	●	2023- 2025
	6.4	●	2023- 2025
	6.5	●	2023- 2025
Nekazaritza ekologiko estrategikoa sustatzea, lehiakortasuna, produktibitatea eta merkaturatzea handitzeko erakunde bat sortuz/zabalduz.	7.1	●	Gauzatzen ari dira eta jarraipen konpromisoa dago
	7.2	●	
Tokiko produktua sustatzea, hobari fiskalak egokituz.	8.1	●	2024- 2025
	8.2	●	2024- 2025
	8.3	●	2024- 2025
Baserri misto profesionala sustatzea	9.1	●	2023- 2028

# Gipuzkoa, Eslovenia eta Irlandak elikadura jasangarriaren inguruan hausnartu dute

Elikadura jasangarria lehenetsuzko erronka da Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat. Helburua da 2040an, Gipuzkoak elikadura-sistema iraunkorra, osasungarria, eskuragarria eta lehiakorra izatea, tokiko ekoizpenaren potentziala maximizatuko duena eta kontsumo arduratsua sustatuko duena, lurraldearen kultura eta nortasuna proiektatuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak elikadura jasangarriaren misioa Eslovenia eta Irlandako herrialdeekin partekatzen du. Testuinguru honetan, hiru lurraldeek elkarlanean garatzeko modu aurreratuak lantzen dabilta, esperientziak partekatuz eta lurralde bakoitza egiten ari dena aztertuz. Hiru herrialdeek aurrera eraman zuten azken lanketa, Gipuzkoan izan zen, eta

jardunaldi honen helburua elikadura jasangarriarekin lotutako ideia eta praktika arrakastatsuak partekatzea eta ezagutzera ematea izan zen, gero, herrialde bakoitzak bere lurraldera egokitu dezan. Hainbat izan ziren landu ziren gaiak, hala nola, tokiko elikadura, tokiko banaketa sistemak, belaunaldi erreleboa, nekazarien hezkuntza...

Irlanda eta Esloveniako gobernuen bisitak klima aldaketari aurre egiteko eta elikadura jasangarria sustatzeko, nazioarteko lankidetzaren garrantzia azpimarratzen du. Herrialdeen arteko ezagutza-eta esperientzia-trukeak beharrezkoak dira beste herrialdeekin proiektu eta aliantzak garatzeko.



Eslovenia eta Irlandako gobernuak Homiztegi Artzain Eskola bisitatu zuten. Ekainak 19.

# 20 urte beste inon topatu ezin daitezkeen lore bereziak eskaintzen

Estatu mailan erreferentziazko azoka da Iturranango Landare Berezien azoka eta aurten 20. edizioa ospatu du. Frantziako azoken eredueta oinarrituta eta Euskal Herrian antzekorik ez zegoenez, 2003 urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aiako Udalak eta, Pagoeta Natura Parkeko ingurumen hezitzaile lanetan jarduten duten "Arreta Pagoeta SSL"ko lan-taldeak Iturraneko Landare Berezien azoka sortu zuten. Azokaren helburu nagusiak Pagoetako Natura Parkea ezagutaraztea eta nekazaritza eta lorezaintza sektoreari dibertsifikazio aukera berriak eskaintzea da, beti ere biodibertsitatearen kontserbazioaren ikuspuntutik.

Pagoeta Natura Parkeko ingurumen hezitzaile lanetan jarduten duten "Arreta Pagoeta SSL"ko lan-taldea azokaren arrakastaz eta garrantziaz mintzatu zaigu Gure Lurra aldizkarian.

## Egun erreferente bihurtu da Landare Berezien Azoka baina nolakoak izan ziren hasierak?

Ziurgabetasun handikoak. Ez genekien azokak zein harrera izango zuen, baina gure sorpresarako, lehen edizioan 7.000 lagun bertaratu ziren, izugarria izan zen. Estatu mailan antolatzen zen lehendabiziko Landare Berezien Azoka izan zen. 2003 urtean ez zegoen mintegi espezializaturik Euskal Herrian, eta egun dozenatik gora daude; horrek azokaren eragin positiboa erakusten du.

## Mintegientzat eta bisitariarentzat zein garrantzia du Iturraneko Landare Berezien Azokak?

Mintegientzat, beraien lana erakusteko aukera eta salmenta puntu oso handia da. Bisitariarentzat aldiz, urte osoan erosi ezin izan duten lore berezi hori erosteko aukera da. Larunbatean etortzen den bisitaria oso jakituna da, asko erosten duena. Aurten adibidez, badaude landareetan 1.000 euro gastatu dituzten bisitariak. Igandeetan bertaraten dena aldiz, egun-pasa etortzen da. Loreak ikusi, jan-edateko postuetan kontsumitu eta egunaz disfrutatzen da. Aipatzekoa da, Interneteko landare foroetan parte hartzen duten pertsonen topalekuetako bat bihurtu dela Iturraneko Landare Berezien azoka.

## Zenbat bisitari bertaraten dira Azokara?

Eguraldiak izugarriko garrantzia du. Eguraldi txarra egiten badu, 4.000 lagun bertaraten dira, ona egiten badu aldiz, 8.000 bisitari etortzen dira.

## Istorio berezirik ba al duzue?

Lehen bazen mintegi bat landare haragijaleak zituenak. Urteetan zehar, landare haragijaleak izugarri gustatzen zitzaizkion mutiko batek landareak erosten zizkion. Landare haragijaleak zituen mintegiko jabea jubilatu egin zen, eta hutsune bat izan genuen Azokan. Egun, urtero landare haragijaleak erosten zituen mutiko hori da landare haragijaleen mintegiaren postua duena. Hor argi ikusten da zein den azokaren helburuetako bat. Ume-umetatik pizten den afizioa, ofizio bihurtu daiteke denboraren poderioz.

## Aurten 20 urte bete ditu Landare Berezien Azokak. Zer suposatzen du horrek zuentzat?

Izugarria da. Urteak joan ahala ikusi dugu oso finkatuta dagoen zerbait dela, eta aurtengo edizioa horren adibide garbia da. Larunbatean, izugarriko zaparradak egin arren, 6.800 pertsona bertaratu dira. Aire librean egiten den zerbait da, eta horrelako eguraldia izan arren hainbeste pertsona bertaratzeko ahalmena izatea izugarria da.

Ea beste 20 urte egiteko aukera dugun. Lanean eta hobetzen jarraitzeko nahi hori oraindik hor dugu eta guretzat izugarriko poztasuna da hemen dugun altxor hau (Aia, Iturranango Lorategi Botanikoa eta Pagoeta Natura Parkea) ikustaraztea. Aipatu beharra dugu, Landare Berezien Azoka antolatzea ezinezkoa izango litzatekeelako Aldundiaren, Aiako udalaren eta boluntarioen laguntzarik gabe.



Argazkia: Aran Aldai

“Azokaren helburu nagusiak Pagoetako Natura Parkea ezagutaraztea eta nekazaritza eta lorezaintza sektoreari dibertsifikazio aukera berriak eskaintzea da, beti ere biodibertsitatearen kontserbazioaren ikuspuntutik.”



## DENOK ITOKO EZ BAGARA

Autobideko tiketa leihoaren zirrikitutik botatzen genuen; kotxea errekan garbitzea ez zitzaigun bereziki salagarria iruditzen; kotxeko hautsontzia aparkalekuan husten ikusteak ez gintuen asaldatzen; ibaia zabortegia balitz bezala erabiltzen genuen. Kontzientzia ekologiko eskaseko gizartea izan gara, ez gara B planik gabeko mundu batean bizi garela konturatu A planak amildegira garamatzala ohartu garen arte. Klima eta bioaniztasuna larrialdi gorrian daude, alarma denak joka ari dira.

Ebidentzien ukatzailerik ez da sekula falta izango, baina, oro har, gure gizartea ohartu da ezinezkoa dela naturak damaizkigun baliabideak erritmo honetan erretzen jarraitzea, ezinbestekoa dela kontsumo-ohiturak aldatu eta energia-iturri berriztagarrien bidea urratzea. Ekologia agendaren erdigunean jar dezagun eskatzen ari zaigu, garrasika.

Ez dago orbanik gabeko kolektiborik, baina baseritarrek besteek ez bezalako atxikimendua eta begirunea izan dute beti naturarekiko. Hala dute oraindik ere. Ekologiaren hobe beharrezko neurriak bulegoetan hartzen dira, ordea, eta askotan baseritarren egoera are itogarriago bihurtu baizik ez dute egiten. Gure lurraren zaintzailerik leialenak itotzen baditugu, gureak egin du. Haiei arnasa eman beharra dago, denok batera itoko ez bagara.

*Xabier Euzkitze*



Traktoreak Donostiako kaleetan zehar, otsailaren 12an.



## En la VIII edición de los Premios Landaola se premiaron diferentes proyectos emprendedores

Estos fueron los proyectos premiados:

- En el apartado de entidades privadas: Makatza Baserria.
- En el apartado de instituciones públicas: Ayuntamiento de Bergara por la creación de Elika Enea en el mercado Oxirondo.
- Premio de las mujeres rurales: Hitez Elkartea.
- Premio a años de trayectoria: Eli Arrillaga.

Los Premios Landaola son necesarios para dar visibilidad al sector.

## La Diputación Foral de Gipuzkoa ha presentado el Plan Estratégico 2024-2027

El Plan Estratégico 2024-2027 tiene como prioridad principal promover el bienestar integral de todas las personas. La hoja de ruta estratégica establecida por la institución foral trae consigo un impulso innovador porque abre el camino a respuestas nuevas y compartidas ante los desafíos sociales y económicos emergentes, dando un salto en la innovación política. El objetivo del Plan Estratégico 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa es construir un territorio vivo, donde las y los ciudadanos vivan en pleno bienestar, equilibrado y compuesto por personas que se sientan bien.



## Gipuzkoan miru gorria babesteko protokoloa nazioartean aipamenak jasotzen ari da kudeaketa onaren eredu gisa

“Raptor Research Foundation (RRF)” sozietate ornitologikoak argitaratzen duen “Journal of Raptor Research” aldizkari zientifikoak artikulua jaso du Aldundiak 2016az geroztik Gipuzkoan basoen kudeaketa miru gorria (*Milvus milvus*) babestearekin bateragarri egiteko abian jarri duen protokoloari buruz. Harraparien ikertzaile eta kontserbazionistentzat munduko irabazi-asmorik gabeko elkarte profesional handiena dena 1966an sortu zen irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa, hegazti harrapariei buruzko informazio zientifikoa pilotzeko eta zabaltzeko. “Albiste bikaina da izen handiko erakunde batek Gipuzkoa kontserbazioko adibide gisa aipatzea, eta gure natura-ingurunea babesteko lanean jarraitzea animatzen gaitu”, adierazi du Xabier Arruti Lurralde Oreka Berdeko diputatuak.





## Lehen sektore bideratutako bi Gradu Amaierako Lan aurkeztu dituzte Deustuko Unibertsitatean

Xabier Arruti, Lurralde Oreka Berdeko diputatua, eta Arantxa Arztimuño, Nekazaritza eta Lurralde Oreka zuzendaria, Gradu Amaierako hainbat lanen aurkezpenean izan dira Deustuko Unibertsitatean. Lan horiek “Mejorando la movilidad ciudadana en entornos rurales” eta “Tecnologías para reducir el impacto medioambiental del sector primario” izena dute eta lehen sektoreko pertsonen bizi kalitatea hobetzera bideratuta daude. Helburua da, etorkizunean, proiektu hauek errealitate bihurtzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitartez.

## Barredo Martín izango da Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburu berria

Amaia Barredo izendatu dute Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburu berria. Barredok ibilbide nabarmena du administrazio publikoan eta lehen sektorean. Elikagaien Zientzia eta Teknologian lizentziaduna da, eta MBA bat du Enpresen Zuzendaritza eta Kudeaketan. Administrazio publikoari dagokionez, hainbat kargutan egin du lan; 2023ko uztaiaz geroztik Arabako Foru Aldundiko Iraunkortasun, Nekazaritza eta Natura Inguruneko diputatua izan da. Aurretik, Eusko Jurlaritzako Ingurumen eta Jasangarritasun sailburuordea izan zen.



## Diputatuen Kontseilua Gipuzkoako udalerrietan zehar

Diputatuen Kontseilua astearte goizero biltzen da, eta bilkura horietan foru gobernua lurralde osora eragiten dioten proiektu, esleipen eta erabaki nagusiak hartzen ditu. Gipuzkoako herrien beharrei zuzenean erantzuteko asmotan, bilkura horiek Gipuzkoako udalerrietan barrena izaten ari dira. Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromisoa udalerritik alde egitea denez, lehen bilkura Leintz-Gatzagan izan zen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehen bilkura Gipuzkoar guztien ongizate integrala bultzatzea da. Helburu horretan aurrera egiteko ezinbestekoa da herri txikien egoerari eta bertako biztanleen ongizateari erreparatzea; Gipuzkoari egiten dioten ekarpena funtsezkoa delako lurralde orekaren, ingurumenaren, ekonomiaren eta hizkuntzaren ikuspegitik.



## Aldundiak zuhaitz landareen mozketan indiskriminatuen aurkako gaitzespen irmoa berretsi du

Azkenaldian lurraldeko hainbat baso berritzeko zuhaitz landaketek jasan dituzten mozketan indiskriminatuen aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere “gaitzespen irmoa” berretsi du eta elkartasuna adierazi die baso-jabeei, ekimen bandaliko hauen aurrean jasatako kalteak direla eta

Halako ekintzak onartezinak dira, natura eta ekologismoa aitzakiatzat hartuta, basoen berritzeari eta ingurumenari kalte egiten diotelako eta pertsonen eskubideak eta gizarte gisa partekatzen diren arauak urratu egiten dituztelako.

## Erlezain Eguna ospatu zen Zegaman

Egun honek, erlezainen funtsezko lanari balioa emateaz gain, baserrik langile guztiei ikusgarritasuna ematek ere balio du. Bertaratutakoek erlezaintzatik eratorritako teknika eta produktuak bertatik bertara ezagutzeko eta bertako baserriarren produktuak erosteko aukera izan zuten. Mota honetako ekimentak ezinbestekoak dira lehen sektoreko pertsonen lana azpimarratzeko.



Erlezain elkarte.



## Denboraldiko lehen izokina sartu da Urumea ibaian!

Emea da eta 4,24 kilo eta 74,5 cm ditu. Aldundian, izokina berreskuratzeko lanetan dihardugu duela 30 urtetik eta horri esker izokin basatia berreskuratzen ari gara Gipuzkoan.

Halaber, aipatu beharra dago Gipuzkoan izokinaren arrantza debekatua dagoela eta irudiko harrapaketa espezie honekin urtero egiten ditugun lanen baitan dagoela. Noski, izokina harrapatu, neurtu, pisatu eta markatu ondoren, berriz ere askatu egin zen.

2023. urtean, Gipuzkoan izokina berreskuratzeko plangintzaren barruan, 26.555 izokin kume askatu ziren Urumean, eta beste 5.222 ale Orian.

## Programa dirigitu a jóvenes agricultores para pasar varios días en explotaciones del Iparralde

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha puesto en marcha un programa para que jóvenes agricultores de Gipuzkoa puedan tener la oportunidad de pasar 10-15 días en explotaciones del Iparralde para conocer la vida y el trabajo de jóvenes agricultores del Iparralde. Este programa busca crear una red de contactos entre los y las jóvenes agricultores, permitiendo el intercambio de conocimientos y experiencias.



# Gipuzkoako Foru Aldundiko ateak zabalik

## INFORMAZIO BULEGOA ETA ERREGISTROA

TELEFONOA	TELEFONOA	ESKAKIZUNAK	HELBIDEA	ORDUTEGIA
943 112 198	943 431 154	Gertubide	Gipuzkoa plaza z.g., laugarren solairua. 20004, Donostia	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara

HERRIA	TELEFONOA	HELBIDEA	ORDUTEGIA	EMAILA
<b>Azpeitia</b>	943 415015 943 415016	Julian Elorza 3, behea. 20730, Azpeitia	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_azpeitia@gipuzkoa.eus
<b>Bergara</b>	943 415068 943 415065	Urteaga 21, behea. 20570, Bergara	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_bergara@gipuzkoa.eus
<b>Elgoibar</b>	943 415079 943 415077	Kalebarren, 1-2. 20870, Elgoibar	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_elgoibar@gipuzkoa.eus
<b>Hernani</b>	943 415086 943 415087	Ibaiondo poligonoa 27, 2. pisua. 20120, Hernani	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_oiartzun@gipuzkoa.eus
<b>Ordizia</b>	943 415099 943 415100	Santa Maria 4, behea. 20240, Ordizia	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_ordizia@gipuzkoa.eus
<b>Tolosa</b>	943 415127 943 415121	Nafarroa Hiribidea 6-2. 20400, Tolosa	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_tolosa@gipuzkoa.eus
<b>Zarautz</b>	943 415147 943 415148	Mitxelena 87. 20800, Zarautz	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_zarautz@gipuzkoa.eus

### Gipuzkoako parketxe sarea

Helbidea: 20567 Aranzazu, Guipuzkoa  
Telefonoa: 943 78 28 94  
Webgunea: gipuzkoanatura.eus

### Etorlur

Helbidea: 1, Ibaiondo Ind., 27, 20120 Hernani  
Telefonoa: 943 33 75 56  
Webgunea: etorlur.eus

### Basotik Fundazioa

Email: basotik@basotik.eus  
Telefonoa: 943 43 18 70  
Webgunea: basotik.eus



Aldizkariaren bertsio  
digitala kontsultatu:

[www.gipuzkoa.eus/eu/web/landaeremua/aktualitatea/argitalpenak](http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/landaeremua/aktualitatea/argitalpenak)

Harremanetarako: [gurelurra@gipuzkoa.eus](mailto:gurelurra@gipuzkoa.eus)

### Hurrengo aleak emailez jaso nahi dituzu?

Lagundu iezaguzu paperaren erabilera murrizten. Gure Lurra aldizkariaren hurrengo aleak email bidez jaso nahi badituzu, bidali iezaguzu mezu bat. Postaz jasotzeko zerrendatik kendu eta email bidez jasotzekora gehituko zaitugu.

#### Gure zerrendetatik baja eman


Aldizkaria Gipuzkoako lehen sektoreko eragile eta ustialekuen jabeei dago zuzendua. Zu zerrenda horretan zaitugulako jaso duzu aldizkaria. Dena den, ez baduzu aurrerantzean jaso nahi aukera duzu baja emateko, goian aipaturiko helbidera idatziaz.

#### Gure zerrendetan alta eman

Gure Lurra Aldizkariak gain, Gipuzkoako Landa Ingurunekeo sailetik aldikako komunikazio ekintzak burutuko dira. Zure email edo/eta telefonoa bidali iezaguzu hartzaileen artera gehitu zaitzagun.

# Gure lurra, guztion ardura

Azaroak 14, osteguna  
Kursaal Kongresu Jauregia, Donostia



Zatoz hiritar eta baseritarren  
arteko topagunera. Lurra zaintzea eta  
zaintzen dutenen lana balioan jartzea  
guztionez delako. **Gorde data!**



**GIPUZKOA**

*Ekin. Zaindu. Bizi.*